ZER DA ETXEBIZITZA BURUJABETZA?

Etxebizitza eskubidea bizitza duin baterako ezinbesteko baldintza da gaur egun. Aterpe ziur bat izateak, edo ez izateak, pertsonaren eremu denak baldintzatzen baititu: harreman sozial eta lan harremanak, edota oreka fisiko eta emozionala.

Garrantzitsua da arazoari irtenbide orokor bat ematea, nahiz eta jakitun garen nolako zailtasunak jartzen dituen sistemak horretarako. Kontuak kontu, eta zailtasunak zailtasun, gai horri heldu beharra dago, eta Hernaniko Udalak eta Hernani Burujabe egitasmoak erabateko borondatea daukate horretarako. Bide horretan, Etxegura etxebizitza eskubidearen aldeko elkartea bidelagun izanik, Etxebizitzaren Behatoki publiko-komunitarioa jarri da martxan.



ZER DA ETXEBIZITZA BEHATOKIA?

Etxebizitzaren gaiaren inguruko kontsultak bideratu, aholkularitza eskaini eta etxebizitza arloko azterketak egingo dituen zerbitzua da. Maizter zein jabe ororen eskura dago; horrela, hainbat egoera eta gertaeren laginak hartuz, herriko etxebizitzaren egoeraren irudi orokor bat osatzeko ezinbesteko tresna izatea du helburu.



ZEIN DIRA BEHATOKIAREN FUNTZIOAK?

Behatokia behar-beharrezko tresna da herriko etxebizitzaren egoeraren tenperatura neurketak egiteko. Gainera, Behatokia Udalaren eta eragile sozialen artean kokatzen da, eta hortaz, biak ala biak elikatzen ditu, eremu bakoitzari baliagarrien zaion informazioa bideratuz. Horrela, eremu bakoitzak jasotako informazioa haien eragin esparruan txertatzeko baliatuz.

Honez gain, etxejabe zein maizterrei bideraturiko zerbitzu konkretuak ere eskaintzen ditu Behatokiak.

ETXEBIZITZA HUTSAK MOBILIZATZEA

Etxebizitza hutsik duen oro artatzeko leihatila ere da Behatokia. Bertan, herritarren kezkei eta beharrei erreparatuz, etxebizitza alokatzeaz arduratzen diren programen inguruko informazioa eskaintzen da eta hauekin lehen kontaktua egiteko bitartekaritza zerbitzua ere ematen da.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Astelehena 10:00-13:00
Asteazkena 15:00-18:00

Florida auzoa 28, 20120 Hernani

Etxegura.elkartea

943 337 019

behatokia@hernaniburujabe.eus

Hernaniko Udala

etxebizitza behatokia

etxebizitza hernani burujabe